



**Basaburuko Udala**  
CIF P 3104900 J  
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

## **2024KO OTSAILAREN 28AN BASABURUKO UDALAK** **EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2024ko Otsailaren 28an, arratsaldeko 18:30etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

**BERTARATUAK:** Julen Beunza, Iker Isiegas, Javier Auza, Micaela Elizalde, M<sup>a</sup> Mar Ansorena eta Alaia Etayo.

Bertaratu da baita ere Iñaki Lopez (Berueteko kontzejuko alkatea)

18:30etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

### **GAI ZERRENDA**

#### **1.- Aurreko aktaren onespena.**

Urtarrilaren 31eko ohiko batzarraren akta onartu dute bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dena.

#### **2.- Alkate ebazpenak:**

- 2024/9 alkate ebazpena, onartuz Jose Joaquin Barberenari ezinduen aparkatzeko txartela.

-2024/10 alkate ebazpena, onartuz lametza enpresak aurkeztutako 2024-003.0. aurrekontua, udal orrian eguneraketak egiteko, 1.331 eurokoa BEZ barne..

-2024/11 alkate ebazpena, ez onartzea Imanol Rekondo Elizalde aurkeztutako zaharberitzeko diru laguntza-eskaera, egindako obra ez dagoelako sartuta zaharberitzeko ordenantzak 2. artikuluan diruz laguntzeko onartutako obretan.

-2024/12 alkate ebazpena, alkatearen eskudeordetzea onartu Alaia Etayo Oronoz zinegotziak 2023/1 zenbakidun ezkontza zibila egiteko ahalmena izan dezan.

-2024/13 alkate ebazpena, onartuz baimena ematea Aizarotzko bizilagunei (Eneko Iurramendi Aleman izanik hauek ordekarria) Aizarotzko herrikoetxeko gela handia erabiltzekoa, otsailaren 2 eta 3an, txerriak hiltzeak dakazkarren lanak burutzeko.

- 2024/14 alkate ebazpena, onartuz baimena ematea Aralar Musika Eskolari, Apeztegi berriko ganbara erabiltzeko. Martxoaren 7an egin behar duten emanaldirako, arratsaldeko 14:30etatik aurrera.

-2024/15 alkate ebazpena, onartuz baimena ematea Xabier Azpiroz Latasari Otsailaren 16an arratsaldeko 19etatik aurrera, Apeztegi berriko lehenengo pisuko gela erabiltzeko, parke eoliko eta solarrari buruzko hitzaldia burutzeko.

- 2024/16 alkate ebazpena onartuz baimena ematea Laia Vigue Llop-ek egindako eskaera, Aizarotzko Luzia Goñi Kulturetxea erabiltzeko, martxoaren 16an 18:30etatik 20:00etara eta martxoaren 17an 10:30etatik 12:30etara Iyengar yoga ikastaroa egiteko.

-2024/17 alkate ebazpena onartuz baimena ematea Tomax Yurramendi Gili, Aizarotzko Luzia Goñi Kultur Etxea erabiltzeko otsailaren 28an 19:00etatik 21:00etara, izaera sozialeko jarduera bat egiteko.

-2024/18 alkate ebazpena onartuz behin behinekoz taxi baimenaren esleipena Martin Perurena Beltzaren alde.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte egindako alkate ebazpenak.

### **3.- 2023. Urteko aurrekontu aldaketak. Behin betiko onespina.**

Alkateak azaltzen du aurrekontu aldaketak hasiera batez onartu zirela abenduaren 21eko ohiko batzarrean eta abenduaren 29ko NAO-n argitaratu zen erabaki honen iragarkia. 1990/6 Nafarroako Toki Administrazioako Foru Legearen 271. Artikulua jarraituz iragarkia 15 eguneko epean egon da ikusgai eta ez dira alegazioak aurkeztu, hortaz araudiak agintzen duen bezala behin betikoz onartu ahal dira aurrekontu aldaketak. Aldaketa guztiak kreditu transferentzia bidez egingo dira, hasierako aurrekontua igo gabe, soberakina zuten partidetatik gerakina hartuz.

Bildutakoek hortaz aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

**- Behin betikoz onartzea 2023ko 1,2 3 eta 4 aurrekontu aldaketak eta erabaki hau modu zehaztuan Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzea.**

### **4.- 2024. Urteko aurrekontua. Behin betiko onespina.**

Aurreko gaiari bezala, tramitazioari bukaera eman behar zaio, 1990/6 Nafarroako Toki Administrazioako Foru Legearen 271. Artikulua jarraituz. 2024. Urteko aurrekontuari behin betiko onespina emanaz. Hasierako onespina 2023ko abenduaren 21eko batzarrean onartu zen eta abenduaren 29ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen erabaki hau. 15 egun baliodunen epean iragarkia udaleko tabloian egon da

alegaziorik aurkeztu gabe, hortaz behin betiko onespena ematea dagokio. Aurrekontua gastuetan 1.788.500 eurokoa da eta sarreretan 1.811.447,55 eurokoa.

Bildutakoek hortaz aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

**- Behin betikoz onartzea 2024. Urterako aurrekontua eta aurrekontua modu xehetuan Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu**

#### **5.- Geserlocal-en bidez udalak tramitatu duen zorraren preskripzioa**

Alkateak azaltzen du Geserlocal entitateak egiten du zorren kobraketa lana, eta otsailaren 2an aurkeztu duten txostena baten arabera, badago 2011ean JEZ-en altan egon zen pertsona baten zerga ezin dena kobratu. Egin dituzte hainbat saiakera bankuko kontuetan kobratzeko, baita ere errentaren aitorpenean eta beste... ez da ezer lortu eta 2011eko izanik, udalari adierazten diote ezin dela kobratu eta hortaz hori onartzeko.

Bildutakoek txostena ikusita, aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

**Geserlocal entitateak egindako txostena onartu eta hortaz Boyka Dimitrovaren 2011-eko JEZ zerga ezin dela kobratu aitortzea eta erabaki hau Geserlocali jakinaraztea.**

#### **6.- Polikiroldegiaren erabilera arautzen duen ordenantzaren aldaketa.**

Kirol Batzordeak polikiroldegiaren erabileragatik tasa bat jartzea adostu duela azaltzen du Javier Auza zinegotziak. Tasa hau Apeztegiberriko dendak egiten duen giltzaren kudeaketa egiteagatik da. Jarri behar duten 2 euroko tasa polikiroldegia erabiltzeagatik ez dagoenez ordenantzan islatua, ordenantzaren aldaketa tramitatu behar da eta 7. Artikuluan txertatu erabileragatik 2 euroko tasa ordaindu beharko dela. Gainera ere argiaren tasak hauek izango direla adostu dute ere batzordean.

- Argia frontoia: euro bat ordu bakoitzeko
- Kantxa: 2 euro ordu bakoitzeko

**Hortaz bildutakoek aho batez eta 1990/6 Nafarroako Toki Administrazioako Foru Legearen 325 artikulua jarraituz aho batez onartzen dute Jaunsaratsko polikiroldegiaren erabilera arautuko duen ordenantzaren aldaketa eta erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu, hilabeteko epean alegazioak jartzeko aukera irekiaz.**

#### **7.- Iruñerriko Mankomunitatearen estatutuen aldaketa.**

Alkateak azaltzen du Iruñerriko Mankomunitateak estatutuak aldatu behar dituela, bizikleta zerbitzua bere gain hartu behar duelako, lehen Iruñeko udalak kudeatzen

zuen, Basaburua Iruñerriko Mankomunitatearen eremuan egonik, onespena eman behar dio estatutuen aldaketa honi. Gainera ere udalerriena da trafiko eta mugikortasunarekin lotutako eskumena duena, 1985/7 Legearen 7. Artikuluaren arabera eta hortaz erabaki hau udalerrietan ere hartu behar da.

Alkateak irakurtzen ditu estatutuen 5 eta 6 artikulua non zehazten dien mankomunitateak dituen eskumenak uraren hornidura, garraio publikoa eta beste diren....

Aldaketarekin, eskumenen artean 8. Puntu bat egongo da 6. Artikuluan eta bizikleten kudeaketa.

Eztabaidatzen da tramitazio honen zergatia udalak ez baitu jasotzen mankomunitatek inongo garraio zerbitzurik, eta ez da ere bizikleta zerbitzu hau Basaburura zabalduko. Honen inguruan keza adierazten dute bildutakoek eta hala egoera hau jakinaraztea mankomunitateari.

Bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute ikusita 1985/7 Tokiko Erregimenaren Oinarrien legearen 25 artikulua, 1990/6 Nafarroako Toki Administrazioako 47. Artikulua eta Iruñerriko Mankomunitateak bidalitako estatutuen aldaketa proposamena,:

**1.- Onartzea aho batez eta gehiengo osoz Iruñerriko Mankomunitateko Estatutuen 6. Artikuluaren aldaketa 8. Puntua Mugikortasuna txertatzeko.**

**2.- Erabaki hau Iruñerriko Mankomunitateari jakinaraziz gainera ere, Basaburuko Udalak ez duela mankomunitateetik inongo garraio zerbitzurik jasotzen, ezta bizikleta partekatu zerbitzua izango.**

### **9.-Moziak.**

Martxoaren 8an inguruan Nafarroako Berdintasun Teknikariek adierazpen instituzionala prestatu dute udaletan onartuz izan dadin. Berdintasun zinegotzia den Micaela Elizalde irakurtzen du ondoren transkribatzen den mozia:

“Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, agerian utzi nahi dugu berdintasun politika publikoek eta feminismoak duten balioa, gizarte-mugimendu eta mugimendu teoriko eta politiko gisa, emakumeek eta gizonen eskubide berak dituzten berdintasunezko gizarte libre baterantz aurrera egiteko. Erdietsitakoa gora behera, benetako berdintasunerantz aurrera egiten jarraitu behar dugula aldarrikatzen jarraitzen dugu.

Feminismoak ibilbide luzea egin du mugimendu sozial eta politiko gisa, eta historian zehar genero desberdinkerien aurrean emakumeek duten ezinegona adierazteko modu baketsuak izan ditu ezaugarri beti. Feminismoa ezagutza zientifikoa ere bada, sistema

patriarkalari eusten dioten elementuak teorizatu eta kontzeptualizatzeko azterketa eta analisi ibilbide luze batekin.

Baina mugimendu feministaren lorpen bakoitzak beti izan du erreakzio matxista bat, kontrako erantzun bat, ezarritako ordena sozialari eustea defendatzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun-harremanak ezabatuko dituen benetako eraldaketa soziala saihesteko.

Erreakzio hori bereziki nabarmena izan da azken urteotan, batez ere aldarrikapen feministak agenda politikoan sartu direnetik.

Informazioaren teknologiek eta ingurune digitalek, oro har, beste esparru batzuk sortzea erraztu dute, eta esparru horietan, hain zuen, erreferente eta/edo programa feministen eta berdintasun arloko edozein aurrerapen edo lorpenen aurkako eraso antolatuak eta deskalifikazioak sustatzen dira. Feminismoaren eta emakumeen aurkako gorroto-diskurtsoa Interneten espazioak hartzen ari da, eta manosfera izenarekin ezagutzen dugunaren inguruan biltzen da.

Inguru horretan antolatzen da matxismoa eta bertatik hedatzen dira mezu anti-feminista eta misoginoak. Gure testuinguruan, Manosferako talde edo azpikultura bereizgarrienak diragizonen eskubideen aldeko elkarte edo taldeak, sedukzioaren guruak, influencer eta eduki- sortzaile antifeministak, foroak, incelak...

Matxismo digitala batez ere gazteengan eragina duen komunikazio- eta harreman-modu berri bat da. Ideiak eta interpretazioak azkar eta berehala hedatzen dira, eta mezuak etengabe sortzen dira, zehaztasunik eta inolako analisi edo eztabaida kritikorik gabe, horiek indartzen dituzten daturik edo ebidentziarik gabe. Maskulinitate tradizionalaren eredua betikotzea xede duten gezurren eta fake news delakoen garaian bizi gara. Maskulinitate horretan gizonak eta emakumeek ezarritako genero-rolak betetzen jarraitzea sustatzen da. Desberdinkeriak zalantzan jartzen dituzten eta, are gehiago, emakumeek gizonak menderatu nahi dituztela iradokitzen duten mezuak; sexu-indarkeria hutsaldu edo are emakumeen aurkako indarkeria existitzen dela ukatzen dutenak; emakumeen askatasuna behin eta berriz zalantzan jartzen dutenak... Internet hartzeaz gain, mezu horiek instituzio publikoetan oihartzuna dute, eta aurrerapen berrien lorpena zailtzen dute, dagoeneko adostasun soziala zuten eztabaidak berriz ere zalantzan jarriz.

Berdintasuna deserosoa da bizi dugun gizartea birpentsatzera eta modu kritikoan aztertzerara behartzen gaituelako. Ikasitakoa etengabe zalantzan jartzen du pertsonak askatasunez eta baldintzatzailerik gabe erabaki dezaketen eredu berriak eraikitzeko. Feminismoa, historian zehar emakumeen ahalduntzea bultzatu duena eta gizarte aldaketa handiak lortu dituena, oso kritikoa da ere maskulinitate hegemonikoarekin (tradizionala), eta hainbat hamarkada daramatza gizonak interpelatzen. Zuzeneko

interpelazio horrek beldurra eta aldaketarekiko erresistentziakeragiten ditu gelditasunean erosoago dauden gizarteko sektore batzuetan. Manosferak bere burua zalantzan jartzeko eta aldatzeko beharrik ez duten espazio bat eskaintzen die, arrakalatutako maskulinitatea leheneratzeko aukera ematen diena.

Internet eztabaida publikoa polarizatu eta inpunitatea errazten duen etsaitasunezko toki bihurtzen duen diskurtso horren aurrean, beharrezkoa da emakumeek lortutako eskubideak finkatzea bermatzen duten berdintasun politikak sustatzen jarraitzea, eztabaida publikoa errespetutik egitea sustatzea, agenda politikoan desberdinkeriak agerian utziz, aurrera egiten jarraitzeko.

Adierazpen hau bultzatzen dugun Toki Entitateek honako konpromiso hauek hartu ditugu:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen jarraitzea gure esku-hartze eremuan politika publikoen bitartez eta udal-arau, -plan eta -proiektu guztietan genero-ikuspegia txertatuta.
- Azterketa eta ikerketa feminista bultzatzen jarraitzea gure testuinguruan, pertsonen bizitzako esparru eta etapa guztietan dauden desberdinkeriak ikusarazteko.
- Mugimendu feministaren ekarpenak eta lana aitortzea, bidezko eta berdintasunezko gizartea lortzeko, erakundeekin hitz egiteko guneak sortuz.
- Adin guztietako gizonekin esku-hartzea bultzatzea, berdintasunezko maskulinitate-ereduen eraikuntza sustatzeko.

**Bildutakoek aho batez onartzen dute adierazpena.**

#### **10.- Haur eskolako garbiketa lanpostuaren egonkortze prozesua. Epaimahaiaren izendapena.**

Alkateak aipatzen du egonkortze prozesuak martxan jarri behar direla eta bukatuak eta langilean izendatuak abenduaren bukaerarako. Haur eskolako garbitzailearen lanpostua betetzeko oposaketa bidez egin behar denez azterketa egin behar da eta hortaz luzeagoa izango denez prozesua, honi hasiera ematea proposatzen du eta horretarako balorazio mahai izendatu behar da.

Kontutan hartuta aurkeztutako batzuekin harremana zuzena dutela bai alkateak bai alkate ordeak eta hortaz ezin dute parte hartu 2015/40 Legearen 23. artikularen arabera.

Bildutakoek hauek izendatzen dituzten hortaz mahaikide:

Alaia Etayo lehendakaria

Iker Isiegas bokala

Mikalea Elizalde bokala

Ordezkoak hurrenez hurren, M<sup>a</sup> Mar Ansorena, Jabier Auza eta Oihanzabal eskolako zuzendaria.

Idazkariak aurkeztutakoen behin behineko zerrenda prestatuko du eta bilera deitu.

## **11. - Batzordeen informazioa.**

### **Euskara Batzordea. Iker Isiegasek ematen du informazioa.**

Otsailaren 22an bilera egin zuen Euskara Batzordeak Korrikaren antolaketaren inguruan hitz egiteko. Korrikaren ospakizunaren baitan, bi ekimen burutuko dira eskolan, horien artean ipuin kontalaria. Gartzarongo elkartean ardo dastaketa egin zen eta martxoaren 3an bazkaria burutuko da Aizarotzen eta antzerkia.

Bestetik ostalariei zuzendutako euskarazko formakuntza aste santuaren ondoren egingo da.

Bailaren euskararen osasunaren radiografia egiteko egitasmoarekin aurrera doa batzordea.

Salto udalekuak antolatuko dira ekaina eta uztailean Basaburua zeharkatuz.

### **Berdintasun Batzordea. M<sup>a</sup> Mar Ansorenak ematen du informazioa.**

Martxoaren 8aren inguruan, afaria antolatu da Berueteko ostatuan Martxoaren 9an, eta Martxoaren 23an bakarriketa bat egingo da. Biak kartel bidez zabaldu dira herrietan.

### **Gizarte Batzordea. M<sup>a</sup> Mar Ansorenak ematen du informazioa.**

Ongizate emozionalerako proiektua burutzeko laguntza eskatu da Nafar Gobernuan. Proiektu honekin egin nahi dena da nahigabeko bakardadearen dauden pertsonekin harremanetan jarri eta haien beharrak aztertzeke. Gizarte langile batek burutuko du programa etxez etxe bilerak eginaz.

### **Kirol Batzordea. Javier Auzak ematen du informazioa.**

Haurrendako eskola txirindula martxan jarriko da eta izena emateko epea ireki da.

Duatlon proba burutu zen eta arrakasta handia izan zuen.

### **Ogasun Batzordea. Micaela Elizalde ematen du informazioa.**

Fiskalitate juxtuago baten helburua izanik, ordenantza fiskalak garatu eta hobariak edo dirulaguntza deialdiak aztertu nahi dira batzordean. Horretarako batzorde bakoitzari eskatuko zaio aztertzea zeintzuk diren Basabururako nahi dituzte **lerroak, biztanleria** finkatzea, etxeeak errentan bultzatzea eta beste... lerro horiek kontutan hartuz garatuko da ordenantza fiskala.

### **Garapen Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.**

PSTD proiektuaren barruan sendak moldatzeko aukera dago ere hotaz proposatu da Basaburutik Ihaben, Gartzaron eta Ilarregui lotzen dituen senda garbitzea. Egitasmo honen helburua da bailarak lotzea senda bidez, kañada eta Eurovelo sarea baliatuz ere.

Garraio Ataleko Zuzendariarekin izan du alkateak bilera eta bertan adierazi dio udalerrriak ez duela inongo garraio zerbitzurik. Aipatu zen bileran Donostiateik abiatzen den zerbitzua esleitu behar dutela orain eta aztertuko dituzte ze aukerak dauden zerbitzu hori luzatzeko bailaran.

Taxi baimena behin behinekoz esleitu da Orokietan bizi den Martin Perurenaren alde. Eskola garraioa aztertzeke bilera bat eskatu da Hezkuntza Departamentuan.

### **11.- Informazio orokorra.**

- Basanet elkarteko batzordekideen izendapenak egiteko bilera burutu behar da.
- Hirigintza plana berriro abian jartzeko bilera egutegi bat finkatu da, plana egin duen arkitektoarekin egiteko alde batetik eta bestetik batzordea, kontzejuetako alkateak eta udaleko arkitektoarekin. Helburua da ekainean behin behineko testua izan eta onartzea.
- Telefonikako hodiak kendu dituzte baina ez jaso eta hortaz zaborrak daude Basaburuko hainbat tokitan. Kexa jarri zaio Telefonika enpresari eta garbitzera etortzeko konpromezua adierazi du.
- Ultzamako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak lan babestuaren programa jarri nahi du berriro martxan eta kontzejuekin egingo den bileran aurkeztuko dute programa.

### **12. Errege-galderak**

Ez daude.

Eta gai gehiago aztertzeke ez dagoenez 20:00ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.